Erref. kodea: LAF-108-941

Izenburua: Gutuneria: SOUDRE, Jean Pierre. [Ikus gainera: 105-716]

+

Sempere Agorrilaren 14a, 1955 ean.

Jaun Directorra.

Ausartatzen naiz ichkribatzeko bi lerro, erraiteko egortzen dauzkitzutala pertsu batzu moldatu izan ditudanak Itsatu herriaren gainean, ikusiko duzu zuhaurrek zer balio duten et nola diren eginak.

Orai orhoitzen bainaiz, juan den urthean Agorrilaren 5eko "Herrian" agertu zen, pertsu ichkribatzeko zoin gehiagotan irabazi nituela bortz ehun libera, "Sempere" deithu nuen kantuarentzat Agur Chuberoaren airean emanak ziren.

Zombeit chokotan bakarrik izitua baitago behar bada, ez bada errebelatu, guttiz ez nuke utziko ez eta ere ostatuan chahutuko. Larreak bezala arras idortuak dire tortoak

+

landak eta bertzeak, gauza nekez heldu den tokian, dirua ere berdin nekezago heldu da. Barkatuko dautazu neure ausartzia guzia, paperak fini ditut, timbreak ere, "bougie" ak ere elektrikarik ez baitugu eta sosarentzat, errekoltentzat bezala arras toki idorrean sortua.

Beraz barkatu eta bertze aldi arte Jainko maiteak nahi badu segurik.

Zure bethiko zerbitzari.

Jan Pierre Soudre

Ichtilartea

Sempere